

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 2a

85 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999 eta 2000ko ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda ([27. or.](#)).

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999 eta 2000ko ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999 eta 2000ko ekitaldietakoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko apirilaren 10ean

Jarduneko lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

**Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999 eta 2000ko ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - 1999 eta 2000ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioa (4. or.).
  - 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (4. or.).
  - Legezkotasuna (4. or.).
  - 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).
- V. Finantza egoerak (5. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren likidazioa (6. or.).
  - V. 2. Egoeraren balantzea 2000ko abenduaren 31n (pezetatan) (8. or.).
  - V.3. Diruzaintza gerakina 1999 eta 2000ko abenduaren 31n (8. or.).
- VI. Kudeaketa arlo nagusiei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (9. or.).
  - VI.1. Langileak (9. or.).

VI.2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak (10. or.).

VI.3. Inbertsioak (11. or.).

VI.4. Tributu-dirusarrerak (14. or.).

VI.5. Bestelako dirusarrerak (16. or.).

VI.6. Diruzaintza (16. or.).

VI.7. Bestelako kudeaketa-arloak (17. or.).

VII. 2000ko abenduaren 31ko finantza egoera (18. or.).

VII.1. 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (18. or.).

VII.2. 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera (19. or.).

VII.3. Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioko planaren jarraipena (20. or.).

I. Eranskina. Azagrako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31n (22. or.).

II. Eranskina. Azagrako Udalaren zor bizia, 2000ko abenduaren 31n (22. or.).

III. Eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (23. or.).

Azagrako Udaleko alkateak aurkezturiko alegazioak (24. or.).

Azagrako Udaleko alkateak aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbarak emaniko erantzuna (24. or.).

**I. SARRERA**

Azagrako Udala Lizarrako Merindadean dago; 3.530 biztanle zituen 2000ko abenduaren 31n.

Ez du inolako erakunde autonomorik eratu bere jarduerara burutzeko.

Udala ondoko mankomunitatetan sarturik dago:

- Goi Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea.

- San Adrián, Azagra, Andosilla eta Cárcarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

- Erdialdeko Erriberako Kirol Mankomunitatea.

1999ko eta 2000ko ekitaldietan ondoko taulakoak dira haren kopuru aipagarrienak:

Ekitaldia	Aitorturiko obl. (pezetak, milioitan)	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)	Langile finkoak, abenduaren 31n
1999	372	343	21
2000	493	600	21

## II. HELBURUA

2001eko apirilaren 9an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldearen ekimenez, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganbarari Azagrako Udalaren 1999 eta 2000ko ekitaldiei buruzko fiskalizazio txosten bat egiteko eskatzea.

Aurreko eskaria betetzeko eta Nafarroako Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1999 Foru Legeari, Nafarroako Toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Azagrako Udalaren 1999 eta 2000ko ekitaldietako kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta dirusarrera- aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioari buruzko arauak osatzen dute, bai eta Nafarroako toki entitei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko arauak ere.

Txostenak helburu du gure iritzia agertzea honako puntu hauei buruz:

a) Azagrako Udalaren 1999 eta 2000ko ekitaldietako aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

Kontuen Ganbarak lehendik Azagrako Udalaren 1987ko ekitaldiko kontuei buruzko txosten bat egin du (40. NPAO, 1988-09-19koa).

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, Parlamentuak eginiko eskaria betez, Azagrako Udalaren (hemendik aurrera udala) 1999 eta 2000ko ekitaldietako fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoko sistema dauka ezarrita, toki kontabilitate publikoari buruzko plan orokorrari jarraituz (plan hori Nafarroako Toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu-egituraren arloan garatzen duen irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretuari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate instrukzio orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuari egokitua dago).

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogak guztiak aplikatu ditugu, baldintzetan eta aurretik udalari bidali genion galdetegian azaldu diren arazoan arabera.

Zehazki, lana dirusarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolerako gaiak aztertu dira. Lana berariaz 2000ko ekitaldian zentratu dugu, salbu aurreko ekitaldian jatorria duten alderdiei dagokienean.

Txostenean udal jardueraren funtzionamendua hobetzeko egokituz jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak jaso ditugu.

Gure lanean eragin duten mugak oro har udalak duen antolamendu txarraren eta bereziki barneko kontrol eskasaren ondorioa dira. Egoera honek ez du bermatzen jarduketa administratibo guztiek ezarritako gutxieneko legeko eta formazko prozedura eta baldintzak bete izana, ez eta jarduketa horiek beti baimendu, erregistratu eta zuzen dokumentatu eta justifikatu izana ere.

Bestalde, txosten hau idazteko garaian, 2000ko kontu orokorrak udalaren osoko bilkurak onetsi gabe daude oraindik; hori dela eta, lana behin-behineko egoera-orrien gainean egin behar izan dugu.

Txostenak zazpi atal ditu. Atal horietan lanaren helburuak eta haren ondoriozko iritzia eta ondorioak jaso ditugu. Halaber, entitatearen organigramari buruzko hiru eranskin ditu txostenak: entitatea-

ren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko zor bizia eta erabilitako adierazleen definizioa.

Azterketa lana 2001eko azaroa eta abendua bitartean burutu zuen auditoretzako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu udaleko langileei.

#### IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Azagrako Udalaren 1999 eta 2000ko ekitaldietako kontabilitateko egoera-orriak aztertu ditugu, Udalaren ardurapean egin eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean biltzen baitira.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuako kanpo kontrolerako organo publikoak koordinatzeko batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Iritzia eman aurretik, berriz ere azpimarratu nahi dugu udalaren antolamendu txarrak ez duela bermatzen ez egindako eragiketak organo eskudunak behar bezala baimendurik daudenik, ez zuzen erregistraturik daudenik ez eta behar adina justifikaturik daudenik ere. Egoera horrek zaildu egiten du udalaren zerbitzu administratibo eta kontabilitatekoen jarduera.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

#### 1999 ETA 2000KO EKITALDIETAKO AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

1999 eta 2000ko aurrekontuen likidazioari buruzko egoera-orriek nahiko ongi agertzen dute, egindako fiskalizazioaren testuinguruan, udalak bi ekitaldi horietan eginiko eragiketen multzoa, ondoko salbuespenekin:

- 2000ko likidazioan, 1 eta 2. kapituluetakoa gastuetarako kredituak 66 milioitan gainditu dira, horretarako behar diren aurrekontu aldaketak onetsi gabe.

- Aurrekontuari organo eskudunak baimendu ez dituen eragiketak egozten zaizkio.

#### 2000KO ABENDUAREN 31KO ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

- Ibilgetu materiala ez dago udal inbentarioarekin loturik —inbentarioa 1992koa da—; bestalde, haren saldoak ez dira ez berraztertu ez berrikusi ibilgetuaren izaera berezia ez duten mugimendu guztiak kentzeko.

- Abenduaren 31ko zordunak ez dute kontabilitate saldoak justifikatuko dituen erlazio nominatiboaren bermerik, sistemak ez baitu datu historikorik ematen.

- Diruzaintzako saldoek ez dituzte udalaren banku-kontu guztiak biltzen; izan ere, antzeman da kasu batean saldoa ez dagoela behar bezala bermaturik; beste batean, berriz, kontabilitateari atxiki zaio.

Aurreko salbuespen guztiak direla eta, ezinezkoa izan zaigu agertzea 2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak udalaren ondare-egoera islatzen ote duen.

#### LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioan, indarreko legeen zenbait ez-betetze argi antzeman ditugu, bereziki aurrekontuen, kontratazio administratiboaren, diruzaintza eta erosketen kudeaketaren eta tributuen arloetan, txostenean adierazi bezala. Ez-betetze horiek gertatu dira, kasu batzuetan, udal idazkaritzak ez-legezkotasunaz ohartarazteko idazkaritzak emaniko aurkako txostenak egonda ere.

Horrenbestez, udal kudeaketak ez du legeztatun printzipioa betetzen.

#### 2000KO ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Azagrako Udalak 2000ko abenduaren 31n gastu orokorretarako 26 milioi pezetako diruzaintzako gerakin negatiboa dauka; halaber, 5 milioiko aurrezki garbi negatiboa eta 505 milioi pezetako zor bizia dauka.

Egoera ekonomiko zail hori aurreko ekitaldian ere antzeman da; hori dela eta, 1997ko abenduan udalak bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioko plan bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin, 2004an udalaren kontuak saneaturik egon zitezten.

Laburpen gisa, eta **ondorio orokor gisa**, gainera honek hauxe adierazten du:

1.go. Txostenean argi eta garbi geratu den bezala, udalak, zenbaitetan, indarreko arauak bete gabe jardun du udal kudeaketaren arlo ezberdinetan ezarritako prozedurak jarraitu gabe, bereziki aurrekontuen eta kontabilitatearen arloan, kontratazio administratiboan eta tributuen kudeaketan. Kasu jakin batzuetan, erabakiak udal idazkaritzaren aurkako txostenarekin hartu dira, eta hirutan, gutxienez, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioiko Departamentuak deuseztatzeko eskaria egin zuen; horietako bat, gainera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian aurkatu zen,

Foru Komunitateko administrazioak arlo horretan legezketasuna kontrolatzeko dauzkan eginkizunak betez. Epailleak erabakia eman gabe daude txostena emateko garaian.

Horrek guztiak etorkizunean baldintza ditzake udal jarduketa hauen balioa, eta instantzia batzuetan erantzukizuna eskatzeko bidea ere eman dezakete.

Kontuen Ganbararen ustez lehentasunezko kontua da Azagrako Udalak bere jarduna legezketasun printzipioei egokitzea eta behar diren erabakiak hartu eta jarduketak egitea, betiere kasuan kasu ezarritako arau eta prozedurei jarraituz. Hori dela eta, dauden jarduketa eta egoera irregularrak normaldu eta haiei konponbide juridikoa emateko behar diren neurriak hartu behar dira.

2.gn. Antzeman dugu, halaber, antolamendu eskasa eta udal jarduketan gaineko barne kontrol ahula dagoela; hori guztia, funtsean, ondokoetan islatzen da: aurrekontu-kontrol eskasa, diruzaintzako funtsen eskuratze banakakoa eta zenbait jarduketan baimentze eta justifikatze desegokiak.

Horri dagokionez, beraz, ezinbestekoa da barne kontrolerako tresnak indartu eta osatzea, eragiketa guztiak zuzen baimendu, justifikatu, dokumentatu eta kontabilitatearen aldetik erregistratu direla segurtatu eta bermatzeko, 1987ko ekitaldiari buruz ganbera honek emaniko txostenean adierazten genuen bezala.

Horri dagokionez, udal erakundeek –osoko bilkura eta alkatea– behar diren presako neurriak

hartu beharko dituzte gaurko egoera gainditzeko; lehentasuna eman behar zaie, besteak beste, udal kontu-hartzailearen lanpostua hornitzeari eta egungo plantilla udalaren beharrei egokitzeari.

3gn. Udalaren finantza-egoerak zorpetze handia eta diruzaintza gerakina eta aurrezki garbi positiboa sortzeko ezintasuna ditu ezaugarri nagusi.

Horrenbestez, gure ustez Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko bideragarritasun planaren esparruan, behar diren presako neurriak hartu behar dira udalaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa epe labur eta ertainean bermatzeko.

## V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Ondotik, udalak eginiko eta udalaren ardurapean eginiko finantzen egoera-orriak azaltzen ditugu.

Txostena baliagarriagoa izan dadin, azalpena honako hauetara mugatuko dugu:

- 1999 eta 2000ko ekitaldietarako udalaren gastu- eta dirusarrera-aurrekontuen likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Udalaren 2000ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea.

- Udalaren 1999 eta 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

## V.1. AURREKONTU LIKIDAZIOA

## 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Dirusarrerak	Aurreikuspena- Hasierakoa	Aldatuak	Aurreikuspena, behin betikoa	Eskubide garbiak	Kobratzeko dagoena	Beteta- koa, %	Guztira, %
1. Zuzeneko zergak	83.200.000	1.758.121	84.958.121	83.659.241	4.115.541	98	24
2. Zeharkako zergak	42.000.000	0	42.000.000	35.371.045	24.274.172	84	10
3. Tasak eta bestelako dirusar.	52.480.200	8.390.727	60.870.927	62.746.276	2.902.675	103	18
4. Administrazio orokorra, transf.	128.667.273	0	128.667.273	132.286.077	100.000	103	39
5. Ondare dirusar. eta aprob. kom.	16.115.620	1.647.000	17.762.620	15.699.839	543.167	88	5
6. Inbertsio errealen besterentzea	7.600.000	0	7.600.000	3.864.000	252.532	51	1
7. Transf. eta bestelako dirusar.	137.015.999	0	137.015.999	8.990.238	299.098	7	3
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboak.	0	0	0	0	0		0
Dirusarrerak, guztira	467.079.092	11.795.848	478.874.940	342.616.716	32.487.185	72	100

Gastuak	Kredituak Hasierakoak	Aldaketak	Kredituak behin betikoa	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeko dagoena	Beteta- koa, %	Guztira, %
1. Langileria gastuak	119.561.977	38.000	195.599.977	118.628.506	596.703	99	32
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	90.934.960	26.681.510	117.616.470	117.351.664	18.955.118	100	32
3. Finantza-gastuak	19.505.288	0	19.505.288	19.125.723	185.943	98	5
4. Transferentzia arruntak	8.262.098	1.525.643	9.787.741	9.787.741	1.343.051	100	3
6. Inbertsio errealak	148.263.259	314.024	148.577.283	39.595.676	10.982.829	27	11
7. Kapital-transferentziak	210.000	0	210.000	210.000	0	100	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboak	67.222.193	62.504	67.284.697	67.284.697	13.131.992	100	18
Gastuak, guztira	453.959.775	28.621.681	482.581.456	371.984.007	45.195.636	77	100

## 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa (pezetatan)

Dirusarrerak	Aurreikuspena- Hasierakoa	Aldatuak	Aurreikuspena, behin betikoa	Eskubide garbiak	Kobratzeko dagoena	Beteta- koa, %	Guztira, %
1. Zuzeneko zergak	82.290.000	0	82.290.000	96.201.767	6.636.183	117	16
2. Zeharkako zergak	16.000.000	0	16.000.000	16.695.451	708.246	104	3
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	59.075.240	0	59.075.240	70.527.694	4.940.708	119	12
4. Administrazio orokorra, transferentziak	128.284.948	0	128.284.948	133.645.469	1.694.280	104	22
5. Ondare dirusarrerak eta aprob. kom.	40.678.620	0	40.678.620	45.065.644	10.613.306	111	8
6. Inbertsio errealeen besterentzea	53.400.000	0	53.400.000	1.550.000	0	3	0
7. Transferentziak eta bestelako dirusarrerak	8.300.000	230.581.738	230.881.738	236.230.918	89.680.326	99	39
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboak.	0	0	0	0	0		0
<b>Dirusarrerak, guztira</b>	<b>388.028.808</b>	<b>230.581.738</b>	<b>618.610.546</b>	<b>599.736.943</b>	<b>114.273.049</b>	<b>97</b>	<b>100</b>

Gastuak	Kredituak Hasierakoak	Aldaketak	Kredituak behin betikoa	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeko dagoena	Beteta- koa, %	Guztira, %
1. Langile-gastuak	121.195.603	0	121.195.603	126.420.233	450.000	104	26
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	96.479.898	0	96.479.898	157.298.484	35.834.982	163	32
3. Finantza-gastuak	15.684.756	0	15.684.756	15.319.522	0	98	3
4. Transferentzia arruntak	10.126.628	0	10.126.628	9.441.217	2.065.810	93	2
6. Inbertsio errealak	72.790.000	230.581.739	303.371.739	126.008.641	44.750.069	42	26
7. Kapital-transferentziak	275.000	0	275.000	275.000	0	100	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0		0	0	0
9. Finantza-pasiboak	57.762.092	0	57.762.092	58.242.732	0	101	12
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>374.313.977</b>	<b>230.581.739</b>	<b>604.895.716</b>	<b>493.005.829</b>	<b>83.100.861</b>	<b>82</b>	<b>100</b>

## V.2. EGOERA-BALANTZEA, 2000KO ABENDUAREN 31N (PEZETATAN)

## Azagrako Udala

AKTIBOA	Kopurua 1999	Kopurua 2000	PASIBOA	Kopurua 1999	Kopurua 2000
IBILGETU MATERIALA	558.591.082	571.944.062	ONDAREA ETA ERRESERBAK	- 34.782.676	109.396.925
Lurzoruak eta ondasun naturalak	22.447.655	26.311.679	Ondarea	10.647.445	10.647.445
Eraikinak	275.393.549	277.424.175	Lagatako ondarea	-45.430.121	-45.430.121
Makineria	19.879.674	19.879.674	Aplikatzeko dauden emaitzak (positiboak)		144.179.601
Garraio gaiak	2.576.380	2.701.380			
Altzariak	15.523.969	4.260.416			
Informazio ekihoak	7.852.159	8.101.986			
Instalazio konplexuak		18.347.056	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	25.950.322	25.950.322
Ondare historiko eta artistikoa;	9.369.147	9.369.147	Kapital-dirulaguntzak	25.950.322	25.950.322
Bestelako ibilgetuak	205.548.549	205.548.549			
IBILGETU EZ-MATERIALA	4.547.200	4.547.200	EPE LUZEKO ZORRAK	564.733.286	506.490.554
Azterlan eta proiektuak	4.547.200	4.547.200	Jasotako maileguak	564.733.286	506.490.554
AZPIEGITURETAKO INBERTSIOAK. ERAB. OROKOR. ONDASUNAK	3.451.000	114.556.661	EPE LABURREKO ZORRAK.	76.421.328	127.252.939
Azpiegiturak eta erabilera orokorreko ondasunak	3.451.000	114.556.661	Aitorturiko obligazioen hartzekodunak	51.024.170	88.789.179
			Ente publikoak, kobratzeko eskubideengatik	10.594.452	10.763.446
HERRI ONDASUNETAN EGINIKO INBERTSIOAK	122.940.805	122.940.805	Ente publikoak, likidatzeko dauden dirusarrerak	10.230.619	23.275.556
Lurzoruak eta herri-ondasunak	122.940.805	120.112.702	Entitate publikoak	2.777.505	3.009.842
Azpiegiturak eta herri-ondasunak		2.828.103	Aurrekontuak ez diren bestelako hartzekodunak	1.794.582	1.414.916
ZORDUNAK	69.838.420	149.552.528			
Aitorturiko eskubideen zordunak	55.564.286	137.711.178			
Aitor. esk. zordunak, beste admin. errekurtsioak	10.594.452	10.763.446			
Aurrekontuz besteko entitate publikoak	688.534	906.722			
Aurrekontuz besteko beste hainbat zordun	2.991.148	171.182			
FINANTZA-KONTUAK	17.133.354	94.981.971	EMAITZAK	144.179.601	289.432.487
Kutxa	632.283	641.475	Ekitaldiaren emaitzak (etekina)	144.179.601	289.432.487
Bankuak eta kreditu-entitateak	16.501.071	94.340.496			
AKTIBOA, GUZTIRA	776.501.861	1.058.523.227	PASIBOA, GUZTIRA	776.501.861	1.058.523.227

## V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA 1999 ETA 2000KO ABENDUAREN 31N

## Azagrako Udala (pezetatan)

	Zenbatekoak	
	1999	2000
Kobratzeke dauden eskubideak garbiak	59.243.968	138.789.082
(-) Kobratzeko dauden eskubideak	(19.868.682)	(21.741.623)
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	(65.825.280)	(116.489.493)
(+) Diruzaintzako funts likidoak	17.133.354	94.981.971
(-) Finantzaketa desbideraketa metatuak	--	(5.533.648)
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	(9.316.640)	90.006.289
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak	--	115.928.870
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorrak	--	(25.922.581)



## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA KUDEA-KETA-ARLO NAGUSIEI BURUZKO GOMENDIOAK

IV. atalean agertutako iritzia kontuan harturik, ondotik kudeaketa-arlo nagusietatik lorturiko ondorioak azalduko ditugu; haiekin batera, Udalak presaz aplikatu behar dituen gomendio edo hobekuntzak datoz.

### VI.1. LANGILEAK

Langile-gastuek 119 eta 126 milioi egiten dituzte, hurrenez hurren, 1999 eta 2000ko ekitaldietan; ehuneko 7 egin dute gora.

2000ko aurrekontuan, langileen gastuengatik aitorturiko obligazioek 5,2 milioitan –ehuneko 4– gainditu dituzte behin betiko kredituak.

Plantilla organikoak 22 lanpostu dauzka –kontu-hartzailearen lanpostua bete gabe dago–, aldi baterako kontrataturiko langile bat ere barne. Udalak, gainera, lan kontratatupeko langile finko bat dauka, plantillan agertzen ez dena.

2000ko abenduaren 31n, 31 dira udalean lan egiten ari diren langileak; kopuru horretan barruan daude musika eskolan aldi baterako lanean ari diren 9 langile eta udalaren beraren zerbitzuan ari den aldi baterako langile bat. Laburbilduz,

Kontratu-harremana	Kopurua
Funtzionarioak	8
Behin-behinekoak	1
Lan-kontratadun finkoak	12
Aldi baterako lan kontratatupekoak	10
Guztira	31

Azpi-marratu nahi dugu, halaber, 1987ko abuztutik udal idazkariaren lanpostua behin-behineko kontratuekin beterik egon dela.

Alkateak hilerio soldata bat jasotzen du, gainerrako zinegotziek dietak baizik jasotzen ez dituzten bitartean. Kontzeptu horiek guztiek 2000ko ekitaldian 5,2 milioi pezeta egiten dute guztira.

Egindako lanaren ondorioz, ondoko gaiak azpi-marratu nahi ditugu:

- 1997an peoi bat aldi baterako kontratu zen, “iraupen jakin bateko kontratuaren” formula erabiliz, “herri-makaldien inausketan aritzeko eta plaza-aren eraikuntzan aritzeko” xedearekin; benetan, ordea, idazkaritzaren txostenei jarraituz, langile horrek hilerriaren ardura izaten du lantegi. Kontratu horrek indarrean jarraitzen du gaur egun ere.

- Hartzaindegia. 2000ko urtarriletik ekainera bitartean, iraupen jakineko kontratu bat egin zen hartzaindegian zainketa lanetan aritzeko, idazkaritzaren aurkako txostena bazegoen ere. Pertsona horri alta eman zitzaion gizarte segurantzari, nominak ere egiten dira, baina nomina horiek ez zaizkio benetan ordaintzen, lanean aritzen deneko ikasgelen alokairuak dakartzen gastuekin konpensatzen zaiolako. Ez dago inon jasota jarduketa horrek behar duen justifikazioa.

Azken batean, bi kasu horietan, iraupen edo zerbitzu jakin baterako kontratuaren figura erabili da bestelako kontratu-harreman bat babesteko.

- Langileei buruzko espediente administratiboak ez daude osaturik.

- Kategoria bereko langileentzat plantilla organikoan osagarrietan ageri diren aldeak (ehuneko 0 eta 35 bitarte) ez daude behar bezala justifikaturik, nahiz eta printzipioz langile horiek eginkizun berak dauzkaten.

- Aldi baterako lan kontratatupeko langileei eta behin-behineko langileei oker ordaintzen zaizkie antzinasuna eta gradua. Halaber, langile bati hilerio kopuru finko bat ordaintzen zaio aparteko orduak direla eta.

- Zenbait ordainketa nominatik kanpo egiten dira (atzerapenak, aparteko orduak...)

- Graduagatiko 1,4 milioi pezetako alde bat, 1993an aitortu dena, ez da 2000ko ekitaldira arte likidatu; atzerapen horrengatik, 1,1 milioi pezetako korrituak ordaindu dira. Ez dago inon jasota jarduketa horren justifikazio egokia.

Arestiko alderdi horiek kontuan hartuz, gomendio hauek egiten ditugu:

- *Gastuetarako kredituek entitateak aitor dezakeen gastuaren gehieneko kopurua egiten dute. Aldez aurretik aurrekontu aldaketetara jo behar da, gastuen beharrezanek hala eskatzen dutenean.*

- *Langileen arloko udal jarduketa guztiak behar bezala dokumentatu eta justifikatu behar dira, indarreko arauak zehatz-mehatz betez.*

- *Behin-behineko langileentzat, legeetan aurreikusitako bideak erabiltzea haien ordainsariak zehazteko garaian.*

- *Langileen espedienteak osatzea haien bide administratiboa egiten duten agiri guztiekin.*

- *Plantilla organikoan bertan sartu beharreko lanpostu guztiak sartzea.*

• *Nafarroako toki entitateen marko orokorraren barruan, kontu-hartzaile lanpostua presaz betezea eta udal idazkaritzaren behin-behinekotasun egoerari konponbidea ematea.*

## VI.2. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

2. kapituluako gastuak 117 eta 157 milioi egin dute guztira 1999 eta 2000ko aurrekontuetan, hurrenez hurren.

Langileen kasuan gertatzen den bezala, 2000ko ekitaldirako 2. kapituluaren aitorturiko obligazioek 61 milioitan gainditu dituzte kreditu erabilgarriak; horrek behin betiko kredituaren ehuneko 63 egiten du.

Egindako lanaren ondorioz, esan behar dugu erosketak eta era horretako gastuak kudeatzeko prozedura bat badago ere, prozedura hori, oro har, ez dela betetzen. Jarduketa horrek zaildu eta eragotzi egiten du, batzuetan, udalaren zerbitzu administratibo eta kontabilitatekoen jardutea, barne kontrolerako eta segurtasun juridikorako gutxieneko mekanismoen aplikazioa oztopatuz; esate baterako, legeetan agindutakoan kontratazio espedientea egitea. Horrenbestez, udalaren lana aurkezten zaizkion fakturak ordaintzea besterik ez da izaten.

Eginiko azterketan oinarrituz, hauxe azpimarratzen dugu:

- Aurrekontuen ikuspegitik, aurreko lerrokadetan aipaturiko gastu handiegiaz gainera, azpimarratu behar dugu kapitulu honetako 2000ko ekitaldirako gastuen ehuneko 40 "zenbait gasturen" barruan kontabilizatzen direla. Gure iritziz, kontzeptu horrek, izenak berak adierazten duen bezala, hondarreko izaera dauka; hori dela eta, beste kontzeptu batzuetan leku berariazkoa ez duten gastuak baizik ez ditu erregistratu behar.

- Gastuak fakturretan oinarritzen dira; faktura horiek, oro har, ez dute beti aldean behar adinako dokumentazio edo justifikaziorik.

- Herriko jaietako gastuak –34 milioi pezeta 2000n– aurrekontuak haiek berariaz onetsi gabe edo programa jakin batean jaso gabe egiten dira, aurrekontuan jasotako kreditua gaindituz; zerbitzu administratiboek fakturak jaso baizik ez dute egiten, batzutan fakturek alkatearen ikusonespena badute ere.

- Bideak konpontzea. 23 milioi pezeta egiten du, eta 2. kapituluari –16 milioi pezeta– eta 6. kapituluari –7 milioi pezeta– egozten zaizkie. Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

a) Kontratazio espedientea ez dago inon jasota; hori dela eta, arlo honetako arauak urratzen ari dira.

b) Aurrekontuetan 6 milioi pezetako kreditua jaso zen; beraz, aurreikuspenak aise gainditzen dira.

c) Fakturek ez dute egindako lanei buruzko informaziorik, ez eta ikusonespenik ere; halaber, ez dago inon jasota udalak obra aurreikuspen teorikoen betetzeari buruzko jarraipenik egiten denik.

d) 2001.eko urtearen bukaeran, oraindik ere 12 milioi pezetako ordainketa bat egiteko dago; hau da, ehuneko 50 baino gehiago.

- Enpresa bati ordaindutako kalte-ordainak. "Zenbait gastuak" delakoaren barruan, 2,5 milioi pezetako kalte-ordain baten ordainketa bat dago –2000ko abuztuaren 21ekoa–, enpresa bati egindakoa. Kalte-ordain hori udalak aginduta obra batzuk geldiaraztearen ondorioz sorturiko kalteengatik ezarri zen; kalte horiek 3,5 milioi pezetakoak direla kalkulatu da, nahiz eta ez den ageri horri buruzko peritu-txostenik.

Kalte-ordain horri buruzko espediente administratiboa Nafarroako Auzitegi Nagusiak eskatuta egin zen, 2000ko martxoan udalaren osoko bilkurak hartutako erabakiaren aurka Nafarroako Gobernuak aurkeztutako administrazioarekiko errekurtsoaren ondorioz.

Osoko bilkura horretan, bi udal taldeek enpresarekin lorturiko akordioaren ondorioz, aho batez eta udal idazkaritzaren aurkako txostena egon arren, enpresari 3,5 milioi pezetako kalte-ordaina ematea erabaki zen.

Administrazio publikoaren ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalte-ordain baten tramitazioak eskatzen dituen oinarritzko agiriak falta zirenez, Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainean aipatu erabakia deuseztatzeko eskatu zion.

Osoko bilkurak, 2000ko abuztuaren 1ean, aho batez onetsi zuen aurreko erabakia deuseztatzea. Hala eta guztiz ere, deuseztatze hori gorabehera, abuztuaren 21ean alkateak 2,5 milioiko konturako ordainketa bat agindu zuen.

2000ko irailaren 19an, Nafarroako Gobernuak 2000ko martxoko erabakia administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatzea agindu zuen.

Udalak, 2000ko azaroaren 14ko osoko bilkuran, kalte-ordainei buruzko espedientea bere arioz hastea erabaki zuen; abenduan, enpresaren behar ziren alegazioak jaso ziren: haietan, obren

geldiarazteak sorturiko kalteak 5 milioikoak direla jotzen da.

2001eko azaroaren 22an, bilkura berezian, osoko bilkurak erabaki zuen ordaintzeke zegoen kopurua –milioi bat pezeta– ordaintzea, nahiz eta inon ere ez zegoen jasota kalte-ordainei buruzko espedientea osatu eta onetsi zenik. Osoko bilkura horren aktak udal idazkaritzak hartutako erabakia ez-legezkoa izateari buruzko ohartarazpena ere jasotzen du.

2001eko abenduaren 13an, alkateak, enpresaren aldeko transferentzia baten bidez, egin zuen, ordaintzeke zegoen diru kopuruarekin. Ordainketa hori udalaren zerbitzu administratiboak jakinaren gainean egon gabe egin zen, eta kontabilitate-dokumentuarekin batera –banku ordezkagiriak gainera–, udal idazkari eta kontu-hartzailearen txosten bat ere erantsi zen; besteak beste, txosten horretan esaten da prozedura administratiboa eta kontu-hartzailetzakoa alde batera utzi direla erabat, eta ez dagoela kreditu nahikorik kontusail horretan.

Martxoaren 6ko 118/2002 ebazpenaz, Toki Administrazioari zuzendari nagusiak udalari 2001eko azaroaren 22ko osoko bilkuraren erabakia deuseztatzeko eskatu zion.

Kontuen Ganbarak eskatuta, alkateak 2002ko otsailaren 1ean ondoko dokumentazioa aurkeztu du:

a) Udal arkitektoaren txosten teknikoa –2002ko urtarrilaren 23ko data duena–, non obrak geldiarazteko udalak harturiko erabakiarengatik enpresari eginiko kaltea baloratzen den. Txosten horretan, 3,5 milioitan baloratzen da kalte-ordaina.

b) Enpresaren 2002ko urtarrilaren 23ko data ere daraman idazki bat, non esaten baitu ados dagoela udal arkitektoak eginiko txostenean agertzen den kalte-ordainarekin.

Udalaren osoko bilkurak 2002ko martxoaren 7an onetsi zituen txosten horiek.

Aurrekontuko kapitulu ekonomiko honetan deskribaturiko egitateen multzoak agertzera ematen du udalak ez dituela bete kontratazio administratiboaren, aurrekontu eta kontabilitate arloaren eta administrazioaren ondare-erantzukizunaren arloko printzipio eta arauak.

*Gastu hauek kudeatzeko prozeduraren bat berehala diseinatu eta aplikatu dadin gomendatzen dugu, bai aurrekontuaren kudeaketa, jarraipen eta kontrola egiten dela, bermatzeko bai entitate publiko guztiei exijitu behar zaizkien legezko baldintza guztiak betetzen direla bermatzeko.*

*Enpresarentzako kalte-ordainen kasuan, kalte-ordainei buruz behar den espedientea onetsi ondoren, organo eskudunak egoera erregulatzen behar diren erabakiak hartu beharko ditu.*

### VI.3. INBERTSIOAK

6. kapituluko gastuak 40 eta 126 milioikoak dira 1999 eta 2000ko ekitaldietarako, hurrenez hurren.

Inbertsioen aurrekontuaren betetze maila ehuneko 27koa baizik ez zen izan 1999an; hau da, 109 milioi pezetako inbertsioak ez ziren gauzatu. Desbideraketa hori heldu da, alde batetik, kaleak zolaberritzeko lanak ez direlako egin —108 milioi pezetako gastua aurreikusitako baino 3,5 milioi baizik ez dira gastatu—; bestetik, aurrekontuetan jasotakoa gainditzen duten inbertsioak egin dira, aurrekontuan horretarako dirurik egon gabe —futbol zelaia, erreten bat egitea eta kiroldegia egokitzeko lanak.

2000n, betetzea ehuneko 62koa izan da, baina aurreikusitako inbertsioak, 78 milioi pezetakoak, ez dira gauzatu. Aurreko ekitaldian bezala, desbideraketa hori heldu da batetik egin ez diren edo hein batean baizik egin ez diren obretatik eta, bestetik, aurreikusitako gabeko inbertsioak edo aurreikusitako gainditzen duten inbertsioak egiteagatik.

Eginiko lanetik, hauxe azpimarratzen dugu:

#### Alderdi orokorrak

- Betetze-oinarriek gastu horiek egiteko prozedura bat osatzen badute ere, prozedura hori ia alde guztietatik urratzen da. Horrek zaildu —eta batzuetan eragotzi ere— egiten du udal zerbitzuek kontabilitate-tratamendua eta jarraipen eta kontrola egitea, bai eta kasuan kasuko kontratazio espedienteak egitea ere.

- Ez dira kredituak hurrengo aurrekontuari gehitzeko figura edo urte anitzeko gastuena erabiltzen. Alderdi horiek aurrekontuen egitea eta atxikitako inbertsioen jarraipena egitea oztopatzen dute.

- Oro har, kontabilitateari buruzko dokumentuek ez dituzte ez formazko betekizunak ez sinadurei dagozkienak betetzen.

- Fidantzak ez dira kontabilizatzen, eta ez dago haiei buruzko erregistro berezirik.

- Ez dago epe ertaineko inbertsioei buruzko aurreikuspenik, urteko aurrekontu-egitea errazteko. Gainera, Nafarroako Gobernuak eta udalak 1997an sinaturiko hitzarmenaren ondorioz, udalak konpromisoa hartzen zuen 2004ra arte inbertsio berriak ez egiteko, toki azpiegituren hiru urteetara-

ko planaren ondoriozkoak eta Toki Administrazio-ko Departamentuak berariaz baimendutakoak baizik. Bada, Departamentuaren txostenen arabera, Udalak guztira 29 inbertsio egin ditu, 83 milioi pezetakoak, horietarako inongo baimenik eskatu gabe.

### Berrikusitako saioa

Ondoko lagina berrikusi da (pezetak, milioitan):

Obra	Kopurua 1999	Kopurua 2000
Kaleak zolaberritzea	3	82
Hilerria zabaltzea	2	6
Futbol zelaia	13	-
Industrialde berria	-	5
Inbertsio guztien gaineko ehunekoak	45	74%

### Kaleak zolaberritzea

Obra 1999ko urrian esleitu zen, presako lehia-keta irekiaren bitartez, 104 milioi pezetatan —ehuneko 4,5eko baja— eta obrak egiteko 4 hilabete eskainiz —ezarritako epea baino 2 hilabete gutxiago—. Obrak egiteko Toki Administrazio-ko Departamentuak % 99,89ko dirulaguntza eman du. Berrikuspina eginda, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- Presako bidearen erabilera ez dago behar bezala justifikaturik. Legediaren arabera, bide hori berariaz ezarritako bi arrazoiengatik erabil daiteke: beharragatik luzapenik onartzen ez duten kontratazio espedienteek eta, halaber, interes publiko delako kausa, esleipena azkartzea behar dutenek. Arrazoi horietako bakarra ere ez dago espedientean justifikaturik. Presazko izaera hori, gainera, kontraesanean dago obrak 3 hilabeteko atzerapenez hastearekin; atzerapen hori bera ez dago espedientean justifikaturik. Hori dela eta, kontratazioari buruzko foru legedian ezarritakoari jarraituz, bidezkoa zen kontratua legeak aginduta etetea.

- Eskaintza ekonomikoa 60 puntutan baloratzen da; puntu horiek eskaintza bakoitzak batez besteko bajarekiko duen aldearen arabera banatzen dira. Irizpide honen erabilera ez dator beti bat efizientzia eta ekonomia printzipioekin.

- Pleguek ezartzen zuten kontratatari ziurtagiri bakoitzeko ehuneko 5 atxikiko zitzaiola, berme osagarri gisa. Klausula hori praktikan ez da betetzen.

- Osoko bilkurak eginiko bi aldaketa jaso dira: bata inbertsioan halako aurrezki bat dakarten

material batzuen aldaketei dagokie; besteak exekuzio epea hilabetez luzatzen du. Enpresaren komunikazio batzuk gorabehera, ikusi ahal izan da materialak aldatzeari eta formalki onesten ez diren obra osagarriei dagozkien beste aldaketa batzuk antzeman dira.

- Obrak jasotzeari buruzko akta 2000ko urrikoa da, hain zuzen ere obrak hasi eta 9 hilabete beranduagokoa. Horrenbestez, 132 eguneko atzerapena antzeman da obrak bukatzeari dago-kionean, baina espedientean ez da hori justifikatu eta ez dira pleguetan alde aurretik ezarrita zeuden zehapenak aplikatu.

- Obra ziurtagirien gaineko kontu-hartzaitza lanik ez da izan, eta, gainera, organo eskudunak ez ditu onetsi.

- Amaierako likidazioa 114,6 milioi pezetakoa izan zen; horrek esan nahi du adjudikazio prezioaren ehuneko 9,97 igo dela. Ez da aldaketa horren arrazoirik azaldu.

- Amaierako ziurtagiri horrekin batera, "Kaleak zolaberritzea. Obra gehigarriak" izeneko faktura bat zegoen, 4,8 milioi pezetakoa, aurreko proiektuko kaleetan eginiko obra batzuei buruzkoa; faktura horrek ez du inongo teknikariren ikusonespenik, eta ez dago formalki onetsia. Faktura hori ordaintzeke dago txosten hau idazteko garaian, eta, gure ustez, hura ordaintzeko organo eskudunak alde aurretik ordainketa hori justifikatu eta baimendu beharko luke.

### Hilerria handitzea

Obra hauek 1998.eko ekitaldian hasi eta 2001.eko ekitaldira bitarte iraun dute, eta 18 milioi pezetako kostua izan dute guztira, behar diren finkak erostea barne dela. Udalak Nafarroako Gobernuaren 16 milioi pezetako dirulaguntza jaso du.

- 1999ko maiatzaren 4ko osoko bilkuran proiektua onetsi zen, 8,5 milioi pezetatan, bai eta kontratazio egiteko espedienteari ekitea ere, presako izapidez, prentsan iragarritako prozedura negoziatua erabiliz. Ez zen inongo eskaintzarik aurkeztu.

Gero, proiektuko prezioak gaurkotu ziren: 11 milioiraino igo zen. Osoko bilkuraren 2000ko ekainaren 27ko erabakiz, berriz ekin zitzaion prentsan iragarritako prozedura negoziatuari.

Eskaintza bakarra aurkeztu da, eta Osoko Bilkurak 11 milioitan adjudikatu zuen kontratua, obrak egiteko 1,5 hilabeteko epea emanda. Obrak abuztuaren 16an hasi ziren.

- Ziurtagirien eta amaierako likidazioaren –2001eko maiatza– baturak 12,7 milioi pezeta egiten dute; horrek esan nahi du adjudikazioaren gaineko prezioan ehuneko 15eko igoera izan dela, bai eta 7 hilabeteko justifikatu eta zehatu gabeko atzerapen bat ere.

- Aurreko datuak ikusita, udal idazkaritzak eragozpen-txosten bat eman zuen, non agertzeraren ematen baitzuen kontratazioari buruzko arauak ez direla bete, obra aldaketak ez baitira tramitatu eta obra gehigarri edo osagarriak ez zaizkiolako formalki adjudikatu kontratista nagusiari, obra horiek ez baitute ehuneko 20ko muga gainditu.

- Aurreko txostenaren ondorio gisa, amaierako likidazioa aldatu eta aurretik aurkeztutakoa 1,4 milioitan gutxitu da. Horrenbestez, amaierako likidazio “berriak” 11,3 milioi pezeta egiten du; kopuru hori kontabilizatu eta dirulaguntza kobratzeko tramitatzen da.

- Amaierako bi likidazio horien arteko aldea inongo teknikok bisatu ez duen faktura batean jasotzen da; faktura horrek, gainera, ez du kontuhartzaitzaren baimenik eta organo eskudunak onetsi gabe dago. Faktura hori 2001eko irailean ordaindu zen.

#### Futbol zelaia

1999ko aurrekontuetan aurreikusitako obra zen. Hasiera batean, 9 milioi pezetako kopurua eta 13 milioi pezetako obligazio aitortuak zeuzkan. Behar diren aurrekontu-aldaketak ez dira tramitatu.

- Ez dago kontratazio espedienterik; alde batera utzi da guztiz eragiketa guztietarako legez ezarritako prozedura.

- Egindako jarduketei buruzko faktura orokor batzuk baizik ez dago, baina ez daude langile teknikoek bisaturik.

- Faktura horietatik bik, 8,1 milioi pezeta egiten dutenek, ez dute gutxienezko informaziorik ematen egindako obrari buruz, materialak eta orduak zehaztuta. Udalean ez dago ez albaranik ez jaso izanari buruzko buletinik, ez haiek justifikatzeko inongo agiririk ere. Alkateak onartutako bankuko ordain-agirien bitartez ordaintzen dira.

#### Industrialde berria

1999an, 5 milioiko aurrekontua zegoen kontzeptu horretarako, baina ez zen inongo kopururik exekutatu. 2000n, kreditu bateratuek 48 milioi pezeta egiten dute; horietatik 5 milioi baizik ez dira exekutatu.

2000ko gastuak industrialdea egiteko lurra erosteko konturako sarrera entrega baten kontzeptuan 2,5 ordaintzeari eta enpresa elektriko bati tentsio ertaineko linea bat instalatzeko hitzarmena betetzeko 2,9 milioi ordaintzeari dagozkie.

Gero, 2000ko abenduan, lurra erosteagatik aurreko ordainketako onuradunak 1,5 milioi peze-ta ordaindu zizkion udalari.

- Ez dago inon jasota industrialde berria eraikitzeari buruzko espediente administratiborik; egindako eragiketarako legez ezarritako prozedura guztiz eta erabat utzi da alde batera. Aurrekoaren ondorioz, egitateak udal osoko bilkuretako akten bidez egiaztatu behar izan ditugu.

- Hartara, 2000ko martxoaren 14ko osoko bilkuran erabaki zen –gehiengo osoz– alkateari baimena ematea industrialderako lurra erosteko eskriturak sinatzeko, udal idazkaritzaren aurkako txostenak zioena gorabehera; izan ere, txosten hartan alegatzen zen erosi beharreko ondasunen gaineko alde aurretiko balioespen tekniko behar zela eta ez zegoela ez lurzati banakako zerrenda bat, ez haiengatik ordaindu beharreko kopurua ere.

2000ko maiatzaren 11n erabaki zen –oraingoa ere gehiengo osoz– zuzenean 36 lurzati erostea –31 erosketatik bidez eta 5 permutatik eginda–; lur horiek 52.000 m<sup>2</sup> egiten zuten, gutxi gorabehera, eta haiengatik 51.1 milioi pezeta ordaindu ziren. Esan beharra dago udal idazkaritzak ohartarazi zuela erabaki hori ere legez kontrakoa izan zitekeela.

- 2000ko ekainaren 1ean, alkateak 2,5 milioi pezetako banku-ordainketa egiteko agindua eman zuen “industrialdeko lurrengatik kontuko entrega” kontzeptupean; haren xedea lurzati zehatz bat erostea dela dirudi. Ez dago dokumentu pribatu nahiz publikorik diru-funtsen halako irteera justifikatuko duenik, kontabilitate dokumentua kontuhartzaitzak baimendu gabe eta sinatu gabe baitago.

- 2000ko ekainaren 20an, Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren zuzendari nagusiak eskaturik, udalari maiatzaren 11ko erabakia deuseztatzeko eskatu zitzaion.

2000ko abuztuaren 1ean, osoko bilkurak aurreko erabakia deuseztatzea erabaki zuen.

- 2000ko abenduaren 12an, osoko bilkuraren saio berezian, industrialde berrirako lurzatiak erostea erabaki zen berriz ere, eta Nafarroako Gobernuari eragiketa hori egiteko baimena eskatu zitzaion.

- Azkenik, 2000ko abenduaren 29an, udal idazkaritzan 1,5 milioi pezeta jaso ziren, "industrialderako lurak erostearen itzulketa" kontzeptupean, hasierako erosketaren onuradunak agindutakoa. Udalean ez dago inon jasota ordaintzeke dagoen diru-kopurua –milioi bat– abalatu edo justifikatuko duenik.

- Gero, Kontuen Ganbarak eskatuta, alkateak 2002ko otsailaren 1ean txosten bat aurkeztu zuen aipatu egoerari buruz; bertan adierazten du ordaintzeke dagoen diru-kopurua industrialde berrian erabiliko diren lurzatiei jabe guztiak itundutako kalte-ordain bati dagokiola, hain zuzen ere errenten galera eta fruta-arbolen botatzea konpentsatzeko xedez. Txosten hori 2002ko martxoaren 7ko osoko bilkuran onetsi zen.

Aurreko iruzkin guztiak agerian uzten dute administrazio-kontratazioaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketaren arloetan ez direla arau indardunak bete, eta ez dela administrazio jarduketak guztietan eskatu beharreko gardentasun eta kontrola izan.

- *Horrenbestez, presaz eta lehenetsunez zenbait neurri eta prozedura aplikatu behar dira legezotasun printzipioa eta udal obrak tramitatu eta exekutatzeko kudeaketa ekonomiko egokia aplikatuko direla bermatzeko.*

- *Industrialde berrirako itundutako kalte-ordainen kasuan, kalte-ordain horiei buruz behar den espedientea onetsi ondoren, organo eskudunak egoera erregulatzeko behar diren erabakiak hartu beharko ditu.*

#### VI.4. TRIBUTU BIDEZKO DIRUSARRERAK

Honakoa izan da 1999 eta 2000ko aurrekontuetako dirusarreraren aurrekontuko 1, 2 eta 3. kapituluaren betetzea:

Kapitulua	1999	2000
Zerga zuzenak	83.659.241	96.021.767
Zeharkako zergak	35.371.045	16.695.451
Tasak, prezio publikoak eta bestelako dirusar.	62.746.276	70.527.694

Zerga zuzenak eta tasak eta prezio publikoak ehuneko 12-15 igo dira; zeharkako zergek –EIOZ–, ordea, ehuneko 53 egin dute behera.

Ondoko taulan kontzeptu nagusiak eta 2000n horiengatik aitorturiko zenbatekoak (pezetak, milioitan) azaltzen dira:

Kontzeptua	Kopurua
Hirilur kontribuzioa	47

Landalur kontribuzioa	10
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	14
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	7
lbigailuen zirkulazioaren gaineko zerga	17
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	17
Ur hornidurak	27
Musika Eskola	5
Pabilioirako eta igerilekuetarako sarrerak	9

Aipatzekoa da hirilur kontribuzioaren garrantzi berezia, gainontzeko kontzeptuena baino handiagoa baita, alde handiz. Udalak bildutako zergei dagokienez, jarraian erakusten dira, zerga-motaren arabera antolatuz, Udalak 2000n aplikaturiko tarifak, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehieneko kopuruekin alderatuta:

Zerga mota	Ehuneko / Indizea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,396	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,73	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,248	1 - 1,4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	18	8 - 20
• 5 urte bitarte	3,3	2,2 - 3,3
• 10 urte bitarte	3,2	2,1 - 3,2
• 15 urte bitarte	3,1	2,0 - 3,1
• 20 urte bitarte	3,1	2,0 - 3,1
Eraikuntzak, instalazioak eta obrak	2,8	2 - 5

Ikusten den bezala, Azagrako Udalak foru arauetan ezarritakoen tarte altuaren barnean dauden tasak aplikatzen ditu.

#### Lege esparru orokorra

- Ez dago dokumentu bidez jasota noiz onetsi diren eta NAO n noiz argitaratu diren ordenantza fiskalak, eta guztiak ez daude Toki ogasunei buruzko Foru Legetik aurrera emandako foru arauetara egokituak.

- Aplikatu beharreko tasa eta tarifak urtero onesten badira ere, akordioak lur kontribuzioari eta JEZari buruz dioen bakarra da KPlaren arabera igoko direla, baina zein tasa zehatz aplikatuko diren zehaztu gabe.

- Ez daude jasota udalak jasotako tasa eta prezio publikoen zenbatekoak justifikatuko dituzten kostuei buruzko azterlanak.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Ordenantza fiskalak arau indardunen arabera gaurkotzea.*

- *Ekitaldian zehar aplikatuko diren tasa eta tarifak urtero eta berriaz onestea.*

• *Tasa eta prezio publikoak ezartzeko kostuei buruzko behar diren azterlanak hartzea oinarri.*

### **Kudeaketarako prozedurak**

Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

• Organo eskudunak ez du ez berrikusten ez onesten tributu likidazioko, kobrantzen kudeaketa-ko eta kontabilitateko jarduketetako bakarra ere.

• Aldizkakoak ez diren dirusarreraren hartu-agi-riak zenbakirik gabe egiten dira.

• Borondatezko epean ordaintzeko gehieneko epeak ez dira betetzen, eta luzapen erreargua ez da likidatzen.

• Ez dago abenduaren 31n zeuden zordunen zerrenda izendunik, aurrekontu zordunen saldoaren euskarri balio duenik.

• Hiri katastroa balioesteko azken ponentzia 1992an egin zen.

• Lurren balio-gehikuntzari buruzko zergan, ez da zehapenik ezartzen zerga horri loturiko eragiketen aitortpenak aurkezteko epeak betetzerakoan gertatzen diren atzerapenengatik.

• EIOZen, ez da behin-behineko likidazioa behin betikoarekin osatzen, tributazioaren xede den obraren kostu errearen arabera.

• Ur-hornidurengatik tasak. Arloa arautzen duen ordenantza ez dago egokitua egun ordaintzen diren kontzeptuei, eta ez da ageri horniduraren altarengatik eta kontagailuen prezioen tarifen onspen formala.

Hona gomendioak:

• *Aldizkako dirusarrerak eta aldizkakoak ez direnak kudeatzeko prozedura osatzea, alde bategatik haien kudeaketa eta agiri bidezko bermea eta bestetik haien jarraipen eta kontrola bermatzeko.*

• *Hirigintza plana onesteko prozesuaren barruan, hiri katastroa gaurretzeari ekitea, merkaturako balioetara hurbiltzeko.*

### **Kontribuzio bereziak**

Bai 3. kapituluan, bai 7.ean, izen hori duten dirusarrerak jasotzen dira, 1,6 eta 8,3 milioi pezetakoak hurrenez hurren.

Gure ustez dirusarreraren multzo horrek ez du legezko tokirik Toki ogasunei buruzko indarreko Foru Legean arauturiko "kontribuzio berezien" kontzeptuan.

a) Ezarpen erabakia alde aurretik hartzea, kasu bakoitzean.

b) Obra ezin izanen da exekutatu kontribuzio bereziaren antolamendu zehatza onetsi arte.

c) Ordenantzak egin beharreko obren kostua, onuradunen artean partitu beharreko kopurua –gehienez, ehuneko 90– eta banaketa-irizpideak finkatu beharko ditu.

d) Subjektu pasiboak eskaturik, ordaintzaren luzapen edo zatitzea eman ahalko da, gehienez ere 5 urtetarainokoa.

Hau da ikusten dena:

### Bideak konpontzea.

Landa lurren azaleraren gaineko erreargua bat aplikatzea esan nahi du, udalak landa bideetako mantentze lanetan egiten dituen gastuak ordaintzeko. Zenbatekoa urtero onesten da; ez dago jasota ez ezarpenaren erabakirik, ez berariazko arautzerik, ez inbertsioaren benetako kostuarekiko loturirik, ez ordainarazteko epe zehatzik.

### Kaleak zolaberritzea

Kasuan kasuko konponketak egiten diren alderdian dauden hiri lurren katastroaren balioaren gainean ehuneko bat aplikatzen da. Horretarako tasa urtero onesten da; 1994an ezarri zen, 10 urteetarako. Ez da ageri ez ezarpenaren erabakirik, ez kostuen zehaztapenik, ez banaketa irizpiderik, besteak beste. 2001ean, kontzeptu horrexegatik hasi da kobratzen udaleko beste leku batean; horren iraupena 2010era artekoa izanen dela aurreikusi da.

Lehen esandakoa aintzat hartuz, hona gure gomendioak:

*Kobrantza horien kudeaketa presaz arautzea, haien ordainaraztea Nafarroako toki entitateei aplikatzeko zaizkien arau fiskal indardunei egokitzuz, kasua bada.*

### **VI.5. BESTELAKO DIRUSARRERAK**

Dirusarrera hauen kapitulueta bilakaera ondoko taulan ageri da:

Kapitulua	1999	2000
Transferentzia arruntak	132.286.077	133.645.469
Ondare-sarrerak eta komunalen aprobetxamendua	15.699.839	45.065.644
Inbertsio errearen besterentzea	3.864.000	1.550.000
Transferentziak eta bestelako dirusarrerak	8.990.238	236.230.918

Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

**Transferentzien ondoriozko dirusarrerak**

2000ko ekitaldian 370 milioi pezeta egiten dute.

Egiaztatu da oro har dirusarrera horiek Nafarroako Gobernuaren kontabilitatean erregistraturiko gastuei dagozkiela, hura baita jatorri horretako baliabideen ekarpen handiena egiten duena.

Hala eta guztiz ere, ekitaldia ixteko garaian, ikusten da ez direla beti irizpide homogeneous aplikatzen kobratzeko dagoen dirusarrera bat abian den ekitaldikoa edo hurrengo ekitaldikoa dela erabakitzeko.

*Irizpide sendo eta uniformeak aplikatu behar dira, gure ustez, kontabilitate printzipio publikoekin, kobratzeko dauden kopuruak aurrekontuari egozteko garaian.*

**Labore eta belarretako herrilurren aprobetxamenduaren ondoriozko dirusarrerak.**

Kontzeptu horrengatik 2000ko ekitaldian 13 milioi pezeta eskuratu dira.

Ez dira aprobetxamendu komunalei buruzko indarreko legeen arabera kudeatzen.

Belarren aprobetxamenduen kasuan, ez da 1999 eta 2000ko ekitaldietako kanona likidatu; kontabilitatearen arabera, 1997ko eta 1998ko ekitaldiak kobratu gabe daude, eta 6,3 milioi pezeta egiten dute. Hala eta guztiz ere, 2000 ekitaldian 0,6 milioi pezetako dirusarrerak aitortzen dira, aurreko ekitaldietako likidazioaren kontzeptuan; zenbateko hori, kontabilizaturiko zorrarekin bat ez etortzeaz gainera, ez dago ez justifikaturik ez dokumentaturik.

*Aprobetxamendu hauek arautzen dituzten ordenantzak lege indardunen arabera gaurkotu eta aplikatzeko gomendatzen dugu, haien oinarritzko alderdiei erreparatuz: azalera, aplikatu beharreko tasak, epeak, adjudikazio mota eta abar.*

*Halaber, kontzeptu horiengatik kobratzeko dauden zenbatekoak kudeatzea.*

**Epaitzen adjudikazioa**

2000n 22 milioi pezeta egiten du. Epaitzak adjudikatze espedientea, oro har, osorik dago, baina fidantza gisa onartzen da adostu gabeko taloi bat, eta ez da mendiaren egoeraren amaierako azterketari buruzko akta jaso.

Bestalde, amaierako ehuneko 25, hau da 5,5 milioi pezeta, kobratzeko dago.

**Harrobiaren ustiapena**

2000ko ekitaldian 4 milioi pezeta egiten du.

Ez dago ez baldintzen plegurik ez udalaren erabakirik harrobiaren aprobetxamendua arautu eta ematen duena; oinarritzko beste alderdi batzuen artean, ondokoak arautu gabe daude: ustiapen plana, herrilurren okupazioa, zenbat erauziko den eta ordaindu beharreko kanona. Horretaz guztiaz gainera, berriki enpresak bere ustiategia handitu eta herrilurretan aglomeratu asfaltikoko eta agregakinak tratatzeko planta bat eraiki zuen.

2000n, ez da inongo kopururik kobratu ez kontzeptu horrengatik ez herrilurren okupatzeagatik ere; udal organoek ez dute jarduketa hori justifikatu.

*Gure gomendioa da ustiategi horren egoera presaz arautzea –udal idazkaritzaren txosten batean azaldutakoaren bidetik–, eta arautze hori indarreko legeen arabera egitea, ustiategiaren berezko alderdiei eta herrilurren okupazioari dago-kienez.*

**VI.6. DIRUZAINNTZA**

Ondoko taulan azaltzen da ekitaldi bukaera bakoitzeko abenduaren 31ko finantza kontuen saldoa:

Finantza kontuak	1999	2000
Kutxa	632.283	641.475
Bankuak	16.501.071	94.340.496
Guztira	17.133.354	94.981.971

Egindako lanetik, honako hau nabarmenduko dugu:

**Kutxa**

Udal kutxaren kudeaketan aplikaturiko jarraipen eta kontrol prozedurek ez dute bermatzen balantzean aurkezturiko saldoen arrazoizkotasuna, funtsean erregistroetan ez direlako saldoak metatzen eta ez delako inongo kontaketarik egiten.

**Bankuak**

Bankuetako saldoei eta kudeaketari dagokienez, ondokoak azpimarratuko ditugu:

- la banku-kontu guztiek alkatearen edo idazkariaren edo gordailuzainaren aldeko banakako erabilera dute.

- Diruzaintza kudeatzen duen pertsona berak hartzen ditu bere gain eragiketen kontabilizazioa, eta jarduketa horiek inork ez ditu begiratzen.



- Banku-laburpenen oharpen guztiak berri-kusi edo punteatzen dira.

- Ez dirudi banku-gordailuen kudeaketa zuzena egiten denik; izan ere, adibidez, abenduaren 31n saldo negatiboa dago 10 milioiren banaketa-kontuan, eta 73 milioi pezetako eperako ezarpenak daude.

- San Adriángo Udalarekin baterako banku-kontu bat dago, bi udalei zerbitzua ematen dien edateko uren araztegiko gastu komunak kudeatzeko. Ez dago dokumentazio aski kontu horren saldoa justifikatzeko –banku-saldoa 1,1 milioi; Azagrako Udaleko kontabilitate-saldoa, 0,4 milioi–, eta, gainera, etekin negatiboak dauzka zorpekoengatik.

- Kontabilitatean ez da sartu 2,5 milioi pezetako kontu baten saldoa. Kontu hori 1999ko apirilaren zabaldu zen, udalaren izenean, urte hartako maiatzean egin behar zen musika-ekitaldi baten antolamenduko gastu eta dirusarrerari aurre egiteko. Musika ikuskizun horren produkzioa partikular batekin batera gauzatu zen, bi aldeek gastuen eta dirusarreraren ehuneko 50 bere gain hartuta. Bi aldeen arteko harremana itun baten bidez gauzatu zen.

1999ko ekainean, udal zerbitzuek musika ekitaldiak izandako gastu eta dirusarreretatik haiek ezagutakoei buruzko txosten bat egin zuten. Hona atera zuten ondorioa: 3 milioiko defizita sortu zela, 7 milioi pezetako gastuak eta 4 milioi pezetako dirusarrerak izan zirelako. Udal kontabilitatean, musika taldea kontratatuzko gastuak bai ez ziren erregistratu –4,9 milioi pezeta–. Udalaren aldeko saldoa, aipatu txostenaren arabera, 3,2 milioi pezetakoa da, eta partikularraren aurkako saldoa, berriz, 1,3 milioi pezetakoa.

Banku-kontu horren saldoa egun hartatik aurrera –1999ko ekaina– geldiarazia dago, bi aldeak musika ikuskizunaren behin betiko likidazioari buruz ados jarri zain, batez ere BEZa gastutzat hartzeari dagokionean.

Bestalde, udal idazkaritzaren txosten bat ere badago, non esaten baitu aipatutakoa administrazioak eginiko kontratu pribatu bat izanda ere, foru legeen arabera haien prestaketa eta adjudikazioa administrazio kontratazioari buruzko arauen arabera izan beharko lukeela. Hori guztia dela eta, publizitaterik gabeko negoziaturiko prozedura proposatzen zen –produkzioan interesa izan zezakeen jende gehiago egon zitekeelakoan–; geroago eginen zen ituna.

Aurreko kontratuek argi adierazten dute barneko kontrolean esateko moduko ahuldadeak dau-

dela, diruzaintza bezalako arlo garrantzitsu batean. Hori dela eta, ondokoak gomendatzen ditugu:

- *Lehentasunez udalaren finantza-baliabideen kudeaketaren gaineko barne kontrol egokia bermatuko duten antolamenduzko eta prozedurazko neurri multzo bat ezartzea. Bereziki, funtsen erabilerara guztiak batera egin behar dira, eta kutxa-kontaketak aldizka egin behar dira.*

- *Geldiarazitako banku-kontu korrontearen egoera argitzea, aldeetako bakoitzari dagozkion kopuruak zehaztuz eta udal kontabilitatean hartatik ondorioztatzen diren gastu eta dirusarrerak erregistratuz.*

## VI.7. BESTELAKO KUDEAKETA-ARLOAK

Atal honetan, kudeaketa-arlo ezberdinetan bildutako iruzkin, ondorio eta gomendioen multzo bat aurkezten dugu.

### Ibilgetua eta inbentarioa

- *Udal inbentarioa gaurkotzea, 1992koa baita, eta hura kudeatzeko aplikazio informatikoa ezartzea, kontabilitatearekin konekta dadin bideratuko duena.*

- *Udalaren jabetzapeko ondasun guztiak eskrituran jaso eta inskribatzea.*

- *Inbertsioei dagozkien aurrekontu-kontabilitateko saldoak depuratzea, udalaren balantzeko ibilgetuan islatu baino lehen.*

### Transferentziengatiko gastuak

Udalaren transferentziengatiko gastuek ia 10 milioi pezeta egiten dute fiskalizaturiko bi ekitaldietan, ondoko taulan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	1999	2000
Mankomunitateak	4.929.733	5.222.643
Enpresak	450.000	-
Familiak	1.816.567	698.751
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	2.229.502	3.144.764
Partzuergoak	361.939	375.059
Guztira	9.787.741	9.441.217

Egindako lanetik, ondokoak gomendatu behar ditugu:

- *Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeek dirulaguntzak emateko eta haiek kontrolatzeko 2001ean onetsitako ordenantza egiazki aplikatzea.*

• *Partzuergoan emandako zerbitzuak finantzatzeko diru-ekarpen guztiek behar bezala justifikaturik eta dokumentuetan jasota egon behar dute.*

#### **Aitorturiko eskubideen zordunak**

Aurrekontu-dirusarreren epigrafean eginiko iruzkinei osatzeko, ondare-masa horren saldoa honela azal daiteke:

Aitorturiko eskubideen zordunak	Saldoa, 2000-XII-31n
Oraingo ekitaldikoak	114.273.049
Itxitako ekitaldikoak	23.438.129
<b>Guztira</b>	<b>137.711.178</b>

Itxitako ekitaldietako saldoaren ehuneko 87 1999 aurreko ekitaldiei dagokie, 1992ra bitarte hartuta.

2000ko abenduaren 31ko zordunen multzoa ez dago udalaren aldeko zorren zerrenda izendun batez babesturik, erabilitako prozedurak ez baitu informazio historikoa gordetzen.

Bestalde, zordun berankorrei buruzko informazioa ez zaio agentzia exekutiboari ematen horri buruzko ordenantzetan adierazitako epeetan.

Hauxe gomendatzen dugu:

• *Aitorturiko eskubideen zordunei buruzko kopuruei ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko zorren zerrenda izenduna eranstea, kontu-multzo horren kontabilitate-saldoak bermatu eta justifikatzeko.*

• *Agentzia exekutiboari berankorren saldoak igortzea ordenantza fiskaletan ezarritako epeetan.*

• *Agentzia exekutiboak berak proposaturiko akastunen aitorpenak eta deuseztapenak formalki onestea, behin legez ezarritako prozedura bete ondoren.*

#### **NILSAren kanona**

*Saneamendu kanonarekin loturiko kontuen eragiketak, likidazioak eta saldoak berrikustea, udalak NILSA sozietatearekin duen finantza-egoera ager dezaten.*

#### **Hirigintza**

Udala, gaur egun, hiri zorua mugatzeko arau batzuen mende dago.

1996an udal plan bat egiteko lanak hasi ziren; plan horri 1997ko ekitaldian eman zitzaion hasierako onespina. Behin-behineko onespina, ordea, 1998ko abenduan eman zen; testu bateratua, azkenik, 2000ko maiatzean egin zen.

Hala eta guztiz ere, 2000ko abenduan, udalak plan horren behin betiko onespina etenarazi zuen, nahiz eta tramitazioa bukatu egon eta Nafarroako Gobernuak onespina eman. Horretarako arrazoi gisa, besteak beste, akatsak egotea, testuan aldaketak egotea, exekuzio unitate batzuk garatzeko zailtasunak aipatu ziren.

Egun hartatik aurrera ez dago inon jasota aurreko oharpenak gainditzeko udalak ezer egin duenik.

Egoera honek zalantzak planteatzen dizkie udal zerbitzuei behar diren hirigintza txostenak emateko; gainera, nolabaiteko segurtasun-ez juridikoa sor diezaioke udalari herritarrekiko harremanetan.

*Gure gomendioa da berehala hirigintzari buruzko udal plana onesteko neurriak hartzea.*

### **VII. 2000KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.**

Atal honen aurretiko iritzia eta iruzkinak kontuan hartuta, ondoren udalaren finantza-egoerari buruzko ondorio nagusiak azalduko ditugu, 2000ko ekitaldian azpimarra berezia eginez.

#### **VII.1. 2000KO AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

• Gastuen eta dirusarreren 2000ko aurrekontuan 374 milioi pezetako hasierako kredituak eta 388 milioi pezetako gastuak daude. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta dirusarreretan. Aldaketa horien zenbatekoa guztira 231 milioi pezetakoa da, eta, funtsean, inbertsioetarako dirulaguntzen aitorpenaren ondoriozkoak dira.

Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, horrenbestez, 605 milioi pezeta egiten dute gastuetan eta 619 milioi pezeta dirusarreretan.

• Aitorturiko betebeharrak 493 milioi egiten dute eta beraz, % 82ko betetze maila dute. Kapituluaren arabera, langileriarri buruzko kapituluaren behin betiko kredituak eta ondasun arrunt eta zerbitzuena gainditu dira; horrenbestez, ehuneko 104 eta 163ko betetzea dute, hurrenez hurren. Hala ere, azpimarratzekoa da inbertsioen betetzearen maila eskasa, ehuneko 42 baizik ez baitu egiten.

Ehunekoetan, honela xehekatzen da gastuen aurrekontua:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendua	60

Inbertsioa	25
Finantza-zama	15
<hr/> Guztira	<hr/> 100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuek osatzen dutena da –langileak, ondasunak eta transferentzia arruntak–, udalak gastatzen dituen 100 pezetatik 60 bereganatzen baititu; langiletan, zehazki, 26 pezeta erabiltzen dira.

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 600 milioikoak dira, ehuneko 87ko betetze-mailarekin. Ia kapitulu guztiek 100eko ehuneko betetzea gainditzen dute; salbuespen bakarra inbertsio errealean besterentzea da, ehuneko 3 baizik ez baita exekutatzen.

Ehunekoaren araberrako osaerari dagokionez:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributuen bidezkoak	31
Transferentzien bidezkoak	61
Ondarearen ondoriozkoak	8
Finantza bidezkoak	-
<hr/> Guztira	<hr/> 100

Hau da, 2000ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia transferentzien bidezko dirusarrerek osaturikoa da: aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 61 pezeta finantza-iturri horretatik heltzen dira. Transferentzien bidezko dirusarrerek, berriz, ehuneko 31 egiten dute. Ez da finantza-pasiboak harrapatzearen ondoriozko dirusarrerarik sortu.

• 2000ko betetze-egoerak 107 milioi pezetako aurrekontu positiboko emaitza eman du. Behin finantzaketa atxikia duten gastuen finantziazioaren ondoriozko doikuntzak egin ondoren, ekitaldiko aurrekontuen emaitzak 64 milioi pezetako superabita erakusten du. 1999an, aurrekontu-emaitza doituak 29 milioi pezetako defizita egiten zuen.

• 2000ko abenduaren 31n, ordaintzeko dauden zenbatekoek –gastuen erresultak– 89 milioi pezeta egiten dute, eta horietatik 6 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik heldu dira. Kobratzeke zeuden kopuruak –dirusarreren erresultak–, guztira, 138 milioikoak ziren; eta jatorria aurreko ekitaldietan zeukatenak ehuneko 23 ziren.

• Txosten honetako V. atalean, 1999 eta 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina jaso dugu. Hura aztertuta, ondokoak dira nabarmentzekoak:

a) 1999an, diruzaintza gerakina, guztira hartuta, negatiboa zen, 9 milioi pezeta hain zuzen; ez

da finantziazio atxikiengatiko desbideraketarik jaso. 2000n positiboa da 90 milioitan, baina guztira 116 milioi daude finantziazio atxikia duten gastuei lotutakoak; horrenbestez, gastu orokorretarako gerakina 26 milioitan da negatiboa.

b) Aurreko ekitaldietatik heldu diren saldoak kobratzen zailtzat jotzeko udalak 2000an dituen irizpidea honako hau da:

Zorraren antzinasuna	Dotazioaren ehunekoak
1998 eta aurrekoak	100
1999	50

• Azkenik, ondoko koadroan ehunekoak erabiliz adierazi dugu 2000ko gastuen aurrekontu-betetzea, funtzioen arabera zehaztuta:

Funtzioa	Ehunekoak
Izaera orokorreko zerbitzuak	9
Herritarren babesa eta segurtasuna	3
Gizartearen segurtasuna, babesa eta sustapena	11
Izaera sozialeko ondasun publikoak sortzea	55
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	7
Zor publikoa	15
<hr/> Guztira	<hr/> 100

## VII.2. 2000KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

Ondoko taulan udalaren 1999 eta 2000. urteetarako ratio edo adierazleak erakusten dira:

Adierazleak	2000	1999
Dirusarreren betetze-maila	97	72
Gastuen betetze-maila	81	77
Kobrantzen betetzea	81	90
Ordainketen betetzea	83	88
Biztanle bakoitzeko gastuak (PTA)	139.860	105.527
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak (PTA)	87.512	75.147
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (PTA)	170.138	97.196
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusar. (PTA)	51.984	51.568
Biztanle bakoitzeko finantza-zama (PTA)	20.869	24.514
Zorpetze-maila (ehunekotan)	12	26
Zorpetze-muga (ehunekotan)	19	25
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	7	-1
Aurrezki garbia (ehunekotan)	-1	-1
Langileria-indizea (ehunekotan)	26	32
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	26	11
Dirulaguntzekiko mendetasuna (ehunekotan)	62	41

Horien azterketa egin ondoren, hauxe azpimarratuko dugu:

- Dirusarreraren eta gastuen betetze-mailek hazkunde nabarmena izan dute 2000ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean. Hala eta guztiz ere, kobrantzen eta ordainketen betetzea nabarmen jaitsi da.

- Biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko 32 hazi dira; hori azaltzeko, kontuan hartu behar da inbertsioak igo egin direla –kapitulu hori gastuen ehuneko 11 izatetik ehuneko 26 izatera iritsi da–. Gastu korrontek ehuneko 16 igo dira.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 75 igo dira, batez ere dirulaguntzak haztearen ondorioz –finantziario iturri horren mendetasuna ehuneko 41 izatetik ehuneko 62 izatera iritsi da–. Tributudirusarrerak, ordea, ia berdina dira bi ekitaldietan.

- Zorpetzeko ahalmena nabarmen hobetu bada ere –1etik 7ra–, udalak oraindik ere ez du aurrezki garbi positiborik sortzen, eta horrek inbertsioetarako daukan ahalmena ahultzen dio.

Hona 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren azalpena (pezetak milioitan):

Adierazleak	2000
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	(26)
Aurrezki garbia	(5)
Epe luzerako zorrak	505

Hau da, Udalak ekitaldiaren bukaeran zuten finantza-egoerak epe luzeko zorpetze handia erakusten du. Horrek esan nahi du hurrengo ekitaldietan baliabide ugari erabili beharko direla sortzen diren finantza-zamei aurre egiteko. Horri aurrezki garbi positiboa sortzeko daukan ezintasuna gehitu behar zaio; horrek finantza-zailtasun horiek areagotu ditzake.

Bestalde, gogorarazi behar da gastu orokor negatiboetarako diruzaintza-gerakina izateak berekin dakarrela, foru arauen arabera, ondoko neurrietako bat hartu behar izatea:

- Gastuak gutxitzea hurrengo aurrekontuan, hain zuzen ere gerakin negatiboak egiten duen zenbatekoa.

- Kreditu operazio batera jotzea, baldin eta haren kitapena unean uneko udalbatza aldatu baino lehen egiten bada. Eragiketa hori kapital

eragiketetan sortutako gerakin negatiboaren zatira mugatuko da.

- Hurrengo ekitaldiko aurrekontua onestea gerakin negatiboaren berdina den superabita jasoz.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Azagrako Udalaren 2000ko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte bera duten udalen 1999ko batez bestekoa <sup>(1)</sup>.

Ratioak	3.000 - 5.000	
	udalak 1999	Azagra 2000
Biztanle bakoitzeko gastu korrontea (pezetatan)	73.282	87.512
Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	49.384	51.984
Zorpetze-muga (ehunekotan)	26	19
Zorpetze-maila (ehunekotan)	7	12
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	19	7
Aurrezki garbia (ehunekotan)	19	-1

Konparazio honen mugak gogoan izanik, honako hauek dira jakingarri behinenak:

- Azagran, biztanle bakoitzeko gastu arrunta ehuneko 19 handiagoa da tarte horretako Nafarroako udaletako batez bestekoa baino; biztanle bakoitzeko dirusarrerak, ordea, ehuneko 5 handiagoak dira batez bestekoa baino.

- Zorpetzearen muga ere batez bestekoa baino txikiagoa da.

- Aurrezki garbiaren sorrera negatiboa da; dagokion tarteko batez bestekoa, ordea, ehuneko 19 positiboa da.

### VII.3. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOARI BURUZKO PLANAREN JARRAIPENA

1997an, Azagrako Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuarekin ondokoak kontpontzeko: “funtsean industrialdearen sustapenaren emaitzek sorturiko egoera ekonomiko-finantzario kritikoa, hartatik heldu baita udalaren finantza-zama handiena; hartarako, 302 milioi pezetako aurrerakina eman zuen Nafarroako Gobernuak, 2002an mugaeguna zutenak. Ez da behar adinako erreakzio ahalmenik izan lehenago bideragarritasun plan bat egiteko edo gastu korrontea doitzeko.”

(1) Toki Administrazioiko Departamentuak igorri eta Biltzar honek 1999ko ekitaldiko Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean argitaratuak

Aitzinsolas horrekin batera, 1996ko ekitaldiko ondoko adierazle do magnitudeak ageri dira, besteak beste:

- Aurrezki garbia (5,6) (milioi pezetatan).
- Diruzaintzako gerakina, (219,1 milioi).
- Zor bizia, 530,5 milioi.

Egoera bide onetik eramateko, bi aldeek lankidetzara esparru bat ezartzea adosten dute, udalaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa sustatzeko.

Horretarako, udalak konpromisoa hartzen du, besteak beste, ondoko neurriak hartzeko; halaber, dagoen informazioan oinarrituz –bai udalarenean, bai Toki Administrazioiko Departamentuarenean–, honako hau da haien betetze maila:

1go. Mailegua finantza-entitate batekin berriz finantzatzea, amortizazio epea 5 urtez luzatuz, bi urteko ezaldiarekin; amaierako mugaeguna, beraz, 2014an izanen da. Udalak neurri hau bete du.

2gn. 20 urteko mailegu bat egitea, 64,5 milioi pezetakoa, bi urteko ezaldiarekin, 1996ko diruzaintza gerakinaren kapital-defizita eta abian dauden inbertsioak finantzatzeko. Udalak neurri hau bete du.

3gn. 100 milioi pezetako mailegu bat egitea 1996ko diruzaintza gerakinari aurre egiteko; 1998an eta 1999an itzuliko da. Udalak neurri hau bete du.

4gn. Oihan aprobetxamenduetako dirusarrerak erabiltzea finantza-zama ordaintzeko, eta hortik lortzen diren dirusarrerak zorrak gutxitzeko erabiltzea. Ez dago berriaz jasota neurri hau bete denik.

5gn. Langileen egungo plantillari 2004ra arte eustea. Neurri hori 2000ra arte bete da.

6gn. Gastu korrontea 2004ko aurrekontura arte izoztea. 2000n ez da hau bete, gastu korronteen ehuneko 45 gora egin dutelako, funtsean 2. kapituluaren 83 milioiko igoera izan delako.

7gn. 2004ra arte inbertsiorik ez egitea, salbu hiru urteetarako planetan sartutakoak eta aparte-ko izaeraz Toki Administrazioiko Departamentuak baimentzen dituenak. Departamentu honen datuen arabera, udalak 83 milioi pezetako baimendu gabeko inbertsioak egin ditu, horietako bat edo beste Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek diruz lagundua.

Lur kontribuzioan eta JEZan gutxieneko tasa batzuk aplikatzea 2004ra arte, eta haiek urtero KPlaren arabera gaurkotzea. KPlaren gainteko tasak aplikatu ditu udalak, eta hartara dirusarrera arrunten ehuneko 16ko igoera lortu du.

9gn. Gutxieneko aurrezki gordin batzuk lortzea. 2000ko aurrezki gordina aurreikusitakoa baino ehuneko 37 txikiagoa da –42 milioi gutxiago–, gastu arruntak gora egin izanaren ondorioz, nahiz eta dirusarrera arrunten aldeko bilakaera egon.

Bere aldetik, Nafarroako Gobernuak ondoko konpromisoak hartu zituen:

1go. Aurreko baldintzen ondoriozko maileguak baimentzea. Neurria bete egin du.

2gn. Banaketa-kontuaren saldo negatiboa 12 urtetaraino luzatzea, 2 urteko ezaldiarekin, korriturik kobratu gabe. Banaketa-kontuaren bi luzapen jaso dira.


3gn. Industrialderako aurrerakinaren amortizazio plana aldatzea, 6 urteko amortizaziora aldatuz, bi urteko ezaldiarekin. Neurria bete egin du.

Horrenbestez, aurreko gogoetek argi uzten dute udalak akordioaren baldintzetako batzuk nolabait ere ez dituela bete; horrek esan nahi du 2000ko abenduaren 31n duen finantza-egoerak ez duela oneratzeko zantzurik.

Ignacio Cabeza del Salvador auditeore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**I. ERANSKINA. AZAGRAKO UDALAREN ORGANIGRAMA 2000KO ABENDUAREN 31N****II. ERANSKINA. AZAGRAKO UDALAREN ZOR BIZIA 2000KO ABENDUAREN 31N  
(pezetatan)**

Entitatea	Xedea	Emandakoa	Zor bizia	Korritu tasa	Mugaeguna
EKH	Ibaia dragatzea	1.058.720	317.616	-	2006
BBV	Zorra birfinantzatzea	64.464.589	60.883.151	6 %	2009
CRN	Mailegua birfinantzatzea	218.000.000	207.263.589	6 %	2014
NAK	Pianoa erostea	182.001	33.407	8 %	2001
Na. Gob.	Industrialdea	302.453.240	148.524.375	-	2013
Gob. Na.	Banaketa-kontuaren luzatzea	30.000.000	15.000.000	-	2005
Gob. Na.	Pisuak, Lanberto Losantos kalea	23.776.200	15.988.209	5 %	2012
Gob. Na.	Urbaniz., La Paz etxebizitzak	5.892.000	2.170.220	-	2015
Gob. Na.	Eraikina, maisuaren etxea	6.437.400	4.108.885	-	2015
Gob. Na.	Banaketa-kontua	56.400.000	50.760.000	-	2010
	<b>Guztira</b>		<b>505.049.452</b>		

**III. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Diru-sarreraren betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea =  $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea =  $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila =  $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea =  $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea =  $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna =  $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko =  $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

### **AZAGRAKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Azagrako Udaleko alkate-udalburu Basilio Sánchez Lasheras jaunak, ondokoa adierazi nahi du Kontuen Ganbarak egin duen txostena dela eta.

Idazki honen bitartez alegazioak aurkezten dizkiola Nafarroako Kontuen Ganbarak 1999 eta 2000ko ekitaldiei buruz egindako behin-behineko txostenari:

1.- Azagrako Udaleko Osoko Bilkurak 2002ko martxoaren 7an Conservas Teo San Marcelino S.L.ri eta M<sup>a</sup> Pilar Sola Prado andreaki kalte-ordainak ordaintzeko hartutako erabakiaren testu osoa eranstu dugu.

2.- Behin-behineko txosteneko 7 eta 24. orrialdeetan ondoko iritzia ematen da: "Abenduaren 31ko zordunak ez dute kontabilitate saldoak justifikatuko dituen erlazio nominatiboaren bermerik, sistemak ez baitu datu historikorik ematen."

Baieztapen hori egokia izan daiteke 1999. urteari buruz ari garela, programa informatikoak ez baitzuen biderik ematen Kontuen Ganbarak eskatzen zuenaren arabera zerrenda bat egiteko, baina 2000ko ekitaldian eta ondokoetan abenduaren 31ko zordunen zerrendak egin dira, programa informatikoa aplikatu eta erabili ondorengo hiru ekitaldian hobetzen joan baita. 1999ko ekitaldia izan zen Nafarroako Rural Kutxaren aplikazioarekin lan egiten zen lehenbizikoa, baina geroztik informazioa aldatzen eta hobetzen joan gara.

(2000ko abenduaren 31ko zordunen zerrenda erantsi dugu).

3.- Txosteneko 7. orrialdean, ondoko iritzia ageri da: "Diruzaintzako saldoek ez dituzte udalaren banku-kontu guztiak biltzen; izan ere, antzeman da kasu batean saldoa ez dagoela behar bezala bermaturik; beste batean, berriz, kontabilitateari atxiki zaio".

Iritzi horretan azaltzen denak gai larria irudi lezake eta interpretazio okerrak egiteko bidea eman dezake; hori dela eta, txostenean zehar azaltzen bada ere, baieztapen hori zehaztea nahi genuke, kontabilitatean bildu ez diren kontuan zein diren esanez. Izan ere, bi kontuak publikoak dira, kontabilitatean zailtasun teknikoengatik sartu ez badira ere, nahiz eta garrantzi erlatibo eskasa izan, ia mugimendurik ez dutelako eta daukaten xedearengatik:

a) Nafarroako Kutxako kontu bat, 1999ko maiatzean eginiko Ella Baila Sola taldearen kontzertuari dagokiona. Udalak eta partikular batek

produzituriko kontzertu haren saldoa biltzen du. Gaia oraindik ere konpondu gabe dago, txostenetan azaltzen den bezala.

b) Nafarroako Kutxako San Adriángo bulegoko kontu bat, edateko uren araztegiko Iberdrolaren erreziboa ordaintzeko erabiltzen dena. Kontu horrek "gordailu" gisa baizik ez du funtzionatzen, Iberdrolaren faktura San Adriángo Udalaren izenean heldu baina udal bakoitzak dagokion zatia ordaindu behar duelako, araztegiko kontsumoen arabera; hain zuzen ere, kontsumo horiek elektrozitatearen faktura eta gero jakiten ditugu. Hori dela eta, kontu horretan udal bakoitzak bere zatia ordaintzen du, eta Iberdrolari egin beharreko ordainketak helbideratuta daude. Ez du faktura "sui generis" hori ordaintzea beste xederik, eta ez du inongo udalaren kontuak aldaraz dezakeen mugimendurik.

4.- Behin-behineko txosteneko 28. orrialdean ondoko baieztapena dator: "Diruzaintza kudeatzen duen pertsona berak hartzen ditu bere gain eragiketen kontabilizazioa, jarduketa horiek inork gainbegiratu gabe".

Gaur egun ez dago udal honetan kontu-hartzaile eginkizunak soilik betetzen dituen pertsona bat, nahiz eta 2000n lortu Toki Administrazioako Departamentuak lanpostu hori deitzeko baimena ematea. Deialdia egin ondoren, ordea, lanpostua bete gabe gelditu zen. Hori gorabehera, eta lanposturako deia berriz egiten den bitartean, 2001etik LADE titulua duen pertsona baten laguntza daukagu: asteen bi aldiz etortzen da udaletxera ekonomia eta kontabilitate arloko lanak gainbegiratzea.

Azaldutakoa dela eta, idazki hau garaiz eta behar den moduan aurkeztutzat jotzeko eskatzen dugu, Nafarroako Kontuen Ganbarak udal honen 1999ko eta 2000ko ekitaldien gainean eginiko behin-behineko txostenaren alegazio gisa har daitezen eta, haiek eta erantsitako dokumentuak ikusirik, txostena adierazitako bidean alda dezan.

Azagran, bi mila eta biko martxoaren hamairkan.

Sinadura:

### **AZAGRAKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANIKO ERANTZUNA.**

Azagrako Udalari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari (1999-2000) aurkezturiko alegazioak jaso ondoren, behin betikotzat jo da txostena aurkeztutako alegazioekin eta ondoren azaltzen ditugun zehaztasunekin:



### 1. alegazioa.

Osoko bilkurak hartutako erabakiaren data behin betiko txostenean sartu da.

### 2. alegazioa.

Behin-behineko txostenean azaltzen den bezala, kontabilitate-saldoek soilik kontabilitate sisteman banaka sartzen diren zordunei buruzko informazioa daukate. Errolden zordunetarako, sartzeko modu hori ez da komenigarria, hartu-agiri ugari egiten baita.

Halere, azken horien banakako kontrola hartu-agiri aplikazio informatikoarekin egin behar da, eta horixe zen 2000ko abenduaren 31ko kontabilitate-saldoak alderatzeko eskatu genuen informazioa.

Udalak aurkeztutako informazioa kontabilitate-saldoen azalpen xehekatu bat baizik ez da, baina ez da dokumentazio horrek biltzen dituen saldo orokorren –“bestelakoak” izen pekoak– zerrenda izendunik erantsi.

### 3. alegazioa.

VI.6. atalean, Diruzaintzari buruzkoan, alegazioan jasotako informazioa zehaztu eta azaltzen da.

“Iritzia” atalean, Sektore Publikoaren Auditoretza Arauei jarraituz, antzemandako salbuespenaren funtsa baizik ez da komentatzen; izan ere, bi konturen saldoetan gorabeherarik badago: batean saldoa ez dago behar bezain bermatua eta bestean ez da Udalaren kontabilitatea islatzen.

### 4. alegazioa.

Txostenaren ondorio orokorrei buruzko atalean esaten da udal organoek lehentasuna eman behar diotela kontu-hartzaile bat edukitzeari, udalaren aurrekontu- eta kontabilitate-kudeaketa ego-kia bermatzeko. Astean bi egunetarako pertsona bat kontratatzea behin-behineko neurri bat baizik ez da, egoerari konponbidea eman bitarte erabiltzekoa.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



## Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa

### Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

“Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko” deialdian onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren –2002ko uztailaren 19ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean– eta erreklamazio eta zuzenketen tramitea bete ondoren, haren 4.4 eta 6.1 oinarrietan xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1go.-** Jarraian transkribatzen den onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onestea:

#### Onartuak:

Aleman Damboriena, Itxaso  
 Anaut Marco, Virginia  
 Arizcuren Rubio, Izaskun  
 Asiáin Ansorena, María de la O  
 Azanza Ilzarbe, Yolanda  
 Balenzategui Arbizu, Enrique  
 Barace de Carlos, Jesús Antonio  
 Barbarin López, Ana Belén  
 Beloqui Basterra, Miguel Angel  
 Cabornero Marco, Alicia  
 Calvo Regueiro, José Luis  
 Carmona Labayen, Silvia  
 Cervera Soto, Juan  
 Díaz de Cerio Lacalle, Jaime  
 Doiz Enériz, Ana José  
 Donázar Andrés, Jesús  
 Eguinoa Ancho, María Nieves  
 Eslava Jericó, Amaia  
 Esparza Azanza, Beatriz  
 Esparza Munárriz, Santiago  
 Esteban Moriones, Nuria  
 Garayoa Alfonso, María Eugenia  
 Garcia García, Manuela  
 Gómez Cía, M<sup>a</sup> Carmen  
 Hernández Armendariz, Arturo  
 Huete Gascón, José Antonio  
 Inchausti Arana, Francisco  
 Irigoyen Sainz, Noelia  
 Irisarri Amatriain, Armando

Irisarri Amatriain, Raúl  
 Iturri Villanueva, Beatriz  
 Jacoste Redondo, Diego  
 Jiménez Sánchez, Mónica  
 Lahoz García, M<sup>a</sup> Inés  
 Larumbe Lander, Daniel  
 Larumbe Sola, Juana  
 Lejardi Saldías, Isabel  
 Lizarraga Jerez, Eduardo  
 López Ruiz, Gustavo  
 Luqui Jiménez, Felisa  
 Malumbres Murillo, Olga  
 Manzano Avellaneda, Alberto  
 Marcén Goñi, Marta  
 Martínez Cía, Ana  
 Martínez Galán, Pedro Manuel  
 Mauleón Goñi, M<sup>a</sup> Isabel  
 Montes Ros, M<sup>a</sup> Angeles  
 Moreno Macuso, Nerea  
 Ochoa Mercero, Iñaki  
 Pascual Suárez-Bustamante, María José  
 Pedraza Carracedo, Pilar  
 Pérez Leoz, María  
 Pérez Zabalza, María Victoria  
 Pinillos Salvador, M<sup>a</sup> Teresa  
 Ramírez Fernández, Pedro  
 Romeo Lizarraga, Pedro  
 Sagardia Celarain, Maria Teresa  
 Saiz Cubillo, María Concepción  
 San Julian Blanco, Amaya  
 Sandúa Mañú, María  
 Torres Suescun, José Luis  
 Ullate García, Henry  
 Urroz Merindano, Natalia  
 Valdeande Berdonces, Alejandro  
 Vidan Astiz, Laura

#### Baztertutak:

Bat ere ez.

**2.-** Jakitera ematea oposizioaren lehen ariketa 2002ko irailaren 25ean egingen dela, 10:30ean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko 2. ikasgelan –Iruñeko Navarrerria kaleko 39 zenbakia.

**3gn.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko abuztuaren 27an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b>
Urte bat ..... 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA